

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak eta Altsasuko Udalak bakearen eta bizikidetzaren arloan jarduerak egingo dituzte

*Ollo kontseilaria udalerrri horretako Javier Ollo alkatearekin bildu da*

Ostirala, 2016.eko azaroak 18

Nafarroako Gobernuak eta Altsasuko Udalak bakearen eta bizikidetzaren arloan ekimenak nahiz jarduerak egiteko, abiarazteko lankidetzan ariko dira. Xede horrekin, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollo udalerrri horretako Javier Ollo alkatearekin bildu zen atzo; bertan, bi erakundeen arteko lankidetzarako aukerak aztertu ziren.



Bileraren une bat.

Bileran Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusi Alvaro Baraibar izan zen ere, eta bilkura hori "Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Toki Erakundeen" programaren barnean sartzen da; programa urte honetan jarri da abian Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren laguntzarekin, eta haren helburua toki-erakundeak bakearen nahiz bizikidetzaren ekintzetan inplikatzeko da (hitzaldiak, foroak eta ekintza zehatzak, esaterako); diagnostikoak eta bizikidetzaren planak egitea, edo alor horretan lantalde egonkorak sortzea.

Nafarroako Gobernuak uste du programan parte hartzea tresna garrantzitsua dela irekiera, sentsibilitate, errespetu eta akordiorako borondatearen jokabide demokratiko bat garatzeko eta sendotzeko garaian. Horretarako, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak zenbait tresna eta baliabide antolatu ditu, honako hauek:

- Aholkularitza teknikoa eta elkarrekin lan egiteko aukera Memoria Historikoari, Duela Gutxiko Memoriari eta Bizikidetzari lotutako diagnostikoak, planak, programak eta ekimenak prestatzeko orduan.
- Nafarroako toki-erakundeetarako laguntzen deialdia egitea urtero Bakearen eta Bizikidetzaren arloan jarduerak egite aldera.
- Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko ekitaldi, foro, ekintza eta kanpainen antolaketan eta finantzaketan parte hartzea.
- Udaleko korporatibo eta teknikariak gaitzeko eta trebatzeko ekintzak Memoria Historikoari, Duela Gutxiko Memoriari eta Bizikidetzari lotutako gaitetan.
- Bakearen eta bizikidetzaren aldeko lantaldeen sorrerari laguntza teknikoa

ematea.

Alde horretatik, Altsasuk beste zenbait udalerrirekin ere bat egiten du (Tutera, Barañain, Eguesibar, Zizur eta Bera), eta haiekin Foru Gobernua dagoeneko elkarlanean ari da programaren esparruan. Gainera, kontseilariak eta zuzendari nagusiak bilera baliatu dute gobernuak ere, Udalari eta Altsasuko herriari bere babesa emateko.